

GOBERNU BATZARRA

2017 04 10

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko apirilaren hamarrean, 08:00etan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria Nerea Letamendia Belloso Jokin Azkue Arrastoa Iñigo Alonso Sarasibar	1.- Aurreko akta onartzea. 2.-Duintasuna elkarteak egindako eskaerak. 3.-Tolosa&Co, merkataritza, ostalaritza eta Zerbitzu elkarteak: 2017ko hitzarmena.
Beh. Beh. Idazkaria:	
Karmele Contreras Goikoetxea	4.-Kondeaneko aldapako 11n Babes Ofizialeko 11 etxebizitza gauzatzeko obren 7. ziurtagiria.
Kontuhartzaitza:	
Ainhoa Molinos Zubiaurre	5.-Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa: 2017. urteko ekarpen finkoa eta hainbat faktura. 6.-14 eta 15/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko apirilaren 3an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Duintasuna elkarteak egindako eskaerak.

Elkarteen udal erregistroan izena emateko eskaera:

Tolosako Duintasuna Elkarteko ordezkariak eskaera egin du Tolosako herriaren onerako irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroan izena emateko.

Ikusita elkarte honek betetzen dituela ezarrita dauden baldintzak, eta Gizarte Politikako batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Duintasuna Elkarteak egin duen eskaera, Tolosako herriaren onerako irabazi asmorik gabeko elkarteen erregistroan sartzeko.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Irabazi asmorik gabeko elkarteen erregistroaren ordezkariari, Gizarte Politikako Departamentuari eta Duintasuna elkarteari.

.....

Emeterio Arrese 2an dauden udal lokalaren erabilera.

Duintasuna Elkarteko bazkideek eskaera aurkeztu dute Emeterio Arrese 2ko egoitzan dauden lokaletako bat erabiltzeko.

Ikusirik bere helburuak direla 3. adinekoen eskubideei eta sentsibilizazioari dagozkien ekintzak egitea, Gizarte Politikako eta Osasuna batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorritik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Emeterio Arrese 2ko egoitzan dagoen 3. gela uztea, ostiraletan, 11:00etatik 13:00etara.

BIGARRENA.- Dagokion kontratua prestatzea, prekariozko izaeran eta gehienez, 4 urterako.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Duintasuna elkarteari, Kontuhartzaitzari eta Gizarte Politikako Departamentuari.

3.-Tolosa&Co, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu elkartea: 2017ko hitzarmena.

Ikusita Lankidetzarako eta akordio ekonomikorako hitzarmena, Tolosako Udalaren eta Tolosa&Co, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu elkartearen artekoa, eta kontuan izanik kontuhartzaileak eta Administrazio Orokorreko teknikariak egin dituzten txostenak, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosa&Co, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu elkarteari aurkeztutako 2017. urteko hitzarmena.

BIGARRENA.- 30.000 €-ko dirulaguntza ematea. Dena den, dirulaguntza hau jaso aurretik, hitzarmenean aipatzen diren dokumentuak aurkeztu behar dituzte.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza honela ordainduko da:

*50, dirulaguntzaren helburu diren jarduerak onartutakoan, bigarren estipulazioan aipatutakoak, eta hitzarmen hau sinatutakoan eta zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin egunean daudelako ziurtagiriak aurkeztutakoan.

* Gainerako % 50a, ondorengo dokumentazio hau aurkeztuta:

* Memoria, egindako jarduketak eta lortutako emaitzak aztertuta.

* Memoria ekonomikoa, justifikatzen duena diru-laguntzaren helburu diren jardueren kostua. Agiri hauek, gutxienez, jaso behar ditu memoriak:

- Diru-sarreraren eta gastuen balantze laburra, dirulaguntza jaso duten jarduerena.

- Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren zerrenda.

*Faktura originalak (edo fotokopia konpultsatuak) egindako gastua egiaztatzen dutenak.

*Ziurtagiriak, egiaztatzen dutenak egunean daudela zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Merkataritza, FERIA eta Turismoko Departamentuari eta Kontuhartzailtzari.

4.- Kondeaneko Aldapako 11n Babes Ofizialeko 11 etxebizitza gauzatzeko obren 7. ziurtagiria.

Tolosako Udalak Kondeaneko Aldapa UTEari esleitu zion "Kondeaneko aldapa 11- 15.3 azpiesparruan Babes Ofizialeko 11 etxebizitza" egiteko obren kontratua, eta 732.842,40 € izan zen esleipenaren zenbatekoa.

Hauexek dira orain arte ordaindu diren ziurtagiriak:

Ziurtagiri zenbakia.....	Faktura zenbakia.....	Zenbatekoa
1. ziurtagiria.....	01/16.....	100.842,98€
2. ziurtagiria.....	02/16.....	76.294,90€
3. ziurtagiria.....	03/16	92.610,55€
4. ziurtagiria.....	04/16.....	76.564,24€
5. ziurtagiria.....	05/16.....	132.892,17€
6. ziurtagiria.....	01/17.....	54.992,82€
GUZTIRA.....		534.197,66€

Orain, honako ziurtagiri hau aurkeztu dute:

7. ziurtagiria..... 02/17..... 85.413,71€-koa.

Ziurtagiria ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea “Kondeaneko aldapako 11-15.n Babes Ofizialeko 11 etxebizitza” egiteko obren 7. ziurtagiria, 85.413,71 €-koa.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kondeaneko Aldapa UTEari eta Kontuhartzaitzari.

5.- Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa: 2017. urteko ekarpen finkoa eta hainbat faktura.

Tolosaldeko Mankomunitatearen Osoko Bilkurak, 2014. ekitaldian, irizpide berriak onartu zituen Mankomunitateko gastuei aurre egiteko udalek egin behar dituzten ekarpenak zehazteko. Irizpide hauek bilketa-sistema desberdinak egotean dute oinarria, zati finko bat eta zati aldakor bat finkatuz: zati finkoa, komunean dauden gastuei aurre egiteko eta, zati aldakorra, udalek jasotzen dituzten zerbitzuen kostuetan oinarrituta.

2016ko abenduaren 19an, Tolosaldeko Mankomunitateko Batzarrak 2017ko ekitaldiko aurrekontua onartu zuen, non, ekitaldiko gastuen eta sarreraren xehetasunaz gain, udalen ekarpen finkoen banaketaren berri eman zen.

Tolosaldeko Mankomunitateak Tolosako Udalari dagokion ekarpen finkoaren agiria aurkeztu du:

Gastu estrukturalak:	189.307,00€
Bilketa gastuak:	881.589,00€
Tratamendu gastuak:	35.920,00€
GUZTIRA:	1.106.816,00€

Bestalde, Tolosaldeko Mankomunitateak ondorengo fakturak aurkeztu ditu:

2017 Urtarrila.....	110.207,35€
2017 Otsaila.....	118.618,74€

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emanako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosaldeko Mankomunitateak aurkeztutako ekarpen finkoa, hau da: 1.106.816,00 €.

BIGARRENA.- Onartzea Tolosaldea Mankomunitateak aurkeztutako ondorengo fakturak:

2017 Urtarrila.....	110.207,35€
2017 Otsaila	118.618,74€

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Ingurumena, Auzoak, Obrak eta Zerbitzuen Departamentuari eta Tolosaldeko Mankomunitateari.

6.- 14 eta 15/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

Kontuhartzaitzak **14/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **375.290,83 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **14/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **15/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **1.468,95 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **15/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaituzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

Beh. Beh. IDAZKARIA